

# Hiru abiadurako Euskal Herria



**JON ALONSO**  
ITZULTZAILEA

ratzarri ginelarik, kulturalki eta administratiboki, paisaiak hiru abiadurako deserri bat erakusten zuen.

Kulturari dagokionez, hori baieztatzeko –berriro– aukera eduki nuen joan den azaroaren 14an, Ortzazeko Menta liburu-denda goxoan. Hara bildu ginen Eñaut Etxamendik aurkeztu zuelako *Gilentegilo Gilen* nobelaren edizio berria (1987ko Irun Hiria Saria).

Jende multzo ederra bildu zen heldu den urtean 90 urte egingo dituen ezterenzubitarren hitzak entzuteko. Etxamendik aitortu zuen *Gilentegilo Gilen* “*ebaxka*”, “*hatsa-patsaka*” idatzitako liburua dela. Hainbeste egiteko zen... Premiazkoa zen nekazaritzan, politikan, kantuan, irakaskuntzan aritzea, buruan “*Amiketarat*” [Ameriketara] joatea besterik ez zuen gazteria bat Nafarroa Beherean geldi eta bizi zedin. Literaturan ere bai, noski. Irulegiko Irratiaren web-orrian entzun dudun audio-tik transkribatzen ditut haren hitzak, ahalik eta fidelen: “Hemen ziizten gazteak partikularzki, baina ez bakarrik gazteak, edozein adinetakoek, euskaraz dakigun ber, behar dugu entseatu, pape-raren gainean ezarri... Nik banakien ez niala irakurle handirik ukanen, ez nian

Bakoitzak bere indarrak  
baizik baliatu ezin  
dituelako ebidentziatik,  
Eñaut Etxamendi baikor  
da; Nafarroa Beherean  
zerbait mugitzen hasi  
dela atzematen du

muaienik ikusten, nola ezagutuarazten ahal nitien ene istorioak jendeer; baina baizik ez balitz ere irakurtuko lukeenik, behar dut harendako segitu bururaino... noizbait menturaz baliatuko dik norbaiten euskara bizirik atxikitzeko. Orduan, ene desiorik minena da zuen artean, zuen inguruan, idazleak atera dituen. Baitezpadakoa da hori”.

Hiru abiaduratako Euskal Herrian bizi gara, eta horrenbestez, literaturaren aldeko kantu hori arrotz edo aspaldikoa,

tokiz kanpokoa, irudi lekiok, menturaz, EAEko idazle gazte bati; hunkigarria suertatu zitzaigun, ordea, joan diren urteetako frantsesaren uholde azkarrak erabat ito ez dituen entzule baxenafartarrei, edo gure lehen motibazioak ahazteko arrazoi sendoegirik ikusten ez dugun Nafarroa Garaikooi. Damurik, “abiadura handiko” Euskal Herriko alerik ez zen izan hitzaldian. Ez eta ondorengo egunetan berria zabaltzen ahal zuen medioren ordekaririk ere. Nago hiru abiaduren ondorioetako bat ez ote den elkarri bizkar emanda bizitze hau, nik sekula eza-gutu handiena, beharbada.

Bakoitzak bere indarrak baizik baliatu ezin dituelako ebidentziatik, Etxamendi baikor da, ordea; Nafarroa Beherean zerbait mugitzen hasi dela atzematen du, literaturan, noski, baita beste hainbat arlotan ere. Handik datorenen produkzioari begira, kantitatez eta kalitatez, ez duke arrazoi falta. Euskal literatura, ausart nadin esaten, *arrabiatu* da Nafarroa Beherean (kontuz, abiadura handiko hori, *arrabiatzea* eta *amorratzea* bi gauza dira). Etxamendik esperantzaz betetako hitzekin finitu zuen hitzaldia: “Zauriekilan bizi guztia pasata, zorionean ari naiz zahartzen”. ●

**ARGIA** BIZI BARATZEA

**Garbiñe Larrea**ren liburu berria:

*Kendu zure bizitzatik  
100 toxiko*

Nola egin kosmetiko segurua etxean

[azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus) (+34) 943 37 15 45

Nobedadea

**KOSMETIKOAK**  
Sendabelarrekin

Zak znik optoarens ederra

28€